

Frankismoko Euskal Herriko eskola-kulturak UPD/EHUko Hezkuntzaren Museoko eskola-koadernoetatik abiatuta

1) Eskola-koadernoak. Zertan datza bere baliagarritasunak hezkuntzaren historian?

Eskola-koadernoek ikastetxe barnean eginiko ariketak, jarduerak, transmititutako jakintzak eta diziplinak ikusten laguntzen digute. Eskoletan eginikoaz gain, klase bakoitzaren funtzionamendua, curriculum, etab. konprenitzeko baliagarriak dira. Funtsean, eskolaren «kutxa beltza» zabaldu eta iraganeko eskola-kulturak behatu eta analizatzeko baliabide praktikokoak dira.



2) Hezkuntza eta Frankismoa Euskal Herrian.

Frankismoak, Bigarren Errepublikak oidezkatu zuen guztia ezabatu nahiko du. 1938tik itxeraren hasierako diren hezkuntza legeek ere hori bultzako dute. Eran gabe doa, euskarazko irakaskuntza galarazi eta patriotismo espainiar tradizionalistaren oinarritutako edukirik lehen lerroan jarri zirela. Testuinguru horretan, eta euskal nazionalismo zaharretik abiatuta sortzen dira Zipitriak bultzatutako euskal «etxe-eskolak» eta, berantago, «ikastolek mugimendua», non 60 hamarkadako euskal nazionalismo eraberrituak eragingo baitu.

3) Helburuak eta Metodologia.

Xedea, eskola-koadernoetatik abiatuta frankismoko Euskal Herriko eskola-kultura nagusiak aztertu eta interpretatzea da, betiere begia pedagogian eta ideologian jarrita. — Horretarako, UPD/EHUko Hezkuntzaren Museoko corpusean dauden eta Hego Euskal Herrian frankismoan zehar ekoizti ziren 418 koadernoen analisi deskriptiboa egiten gabiltza: kualitatiboa eta kuantitatiboa.

4) Kasierako emaitzek eta koaderno batzuen erakusketa

a) Pedagogia.

Erabat ezberdinak dira. Eskola ofizialetan ariketa mnemoteknikoak gailentzen dira. Etxe-eskoletan intuitiboak dira eta olerkiek pisu handia dute hizkuntzan. Olereta Eskolatan, aldiz, matematikak modu intuitiboan lantzeaz gain, eskola-komunitatearen garrantzia, ikasleen lana, eta eskolako jarduerak bereziak ikustarazten ditu.



b) Ideologia.

Esplizitua aurkitzen da eskola ofizialetan eta etxe-eskoletan, baina erabat ezberdin: lehena historizismoan eta formakuntza politikoan oinarritzen bada, bigarrenak tradizioari, gomutari eta lurraldetasunari eutsiko dio. Eskolako haur-ekoizpenek, ikastolako euskalduntasuna argi uzten dute, baina orobat, idazketa libreagoak dituzenez, ikasleen iruditeria gertura gaitzke.

c) Pentsamendu pedagogikoa.

Olereta Eskolako Eskolatan ikasleek lan egiten zuten kooperatibaren berri ematen digute aldizkariak, eta praktika horren sustraietan Makarenkoren ideiak ikus daitezke. Kalaber, aldizkariak eta inprenta Freinetenak dira.

d) Koadernoak.

Kultura bakoitzak bere egiturazko koadernoak ditu. Nazional-katolikoetan, marrik, marjinak, karratuak egon ohi dira, Zipitriak erabilitakoak blok leunak dira, marra gabekoak. Oleretako aldizkariak, berriaz, neurri handi batean mekanografiar idatzirik daude eta aldizkari forma dute. Hau da, azken hauek helburu gehigarri bat dute: komunikazioa eta helarazpena

